EGITARAUA
PROGRAMA

Ekainak 11 Junio	**Markelíne** Aló Europa (Helduentzat-para Adultos) Lerratxoko eskolako patioa. 22:30
Ekainak 19 Junio	**Goloka** Namek (Haurrentzat-Infantil) San Luis plaza (Herrera). 18:30
Ekainak 19 Junio	**Hankagorri** Mukikrossa (Haurrentzat-Infantil) Gaskonia pleta (Antigua). 18:00
Ekainak 23 Junio	**Goloka** Namek (Haurrentzat-Infantil) Martín Santos plaza (Egia). 18:00
Ekainak 24 Junio	**Loco Brusca** Speerman (Helduentzat-para Adultos) Gabriel Celaya plaza (Intxaurrondo). 22:00
Ekainak 25 Junio	**Quixot-de 8** Iokoaren zirriborroa (Haurrentzat-Infantil) Eliza kalea-Calle Iglesia (Loiola). 10:00-14:00
Ekainak 27 Junio	**Detraka** Txikiclub (Haurrentzat-Infantil) Oleta plaza (Altza). 18:00
Ekainak 28 Junio	**Hankagorri** Mukikrossa(Haurrentzat-Infantil) San Martzial plaza (Altza). 19:00
Ekainak 28 Junio	**Hontzmuga** Sportzis (Haurrentzat-Infantil) Bernart Etxepare plaza (Intxaurrondo). 18:00
Ekainak 29 Junio	**Hika** Xagukumeak (Haurrentzat-Infantil) Gabriel Celaya plaza (Intxaurrondo). 18:00
Uztailak 1 Julio	**Markelíne** Aló Europa (Helduentzat-para Adultos) Sagastieder plaza (Intxaurrondo). 22:00
Uztailak 4 Julio	**Hankagorri** Mukikrossa (Haurrentzat-Infantil) Sagastieder plaza (Intxaurrondo). 19:00
Uztailak 15 Julio	**Hankagorri** Mukikrossa (Haurrentzat-Infantil) San Frantzisko kalea (Gros). 19:30
Uztailak 16 Julio	**La ventanita** Chipliniana (Helduentzat-para Adultos) Bilberi plaza (Gros). 18:30 / 19:30
Uztailak 17 Julio	**Gaitzerdi** Ciro-Bira (Helduentzat-para Adultos) Groseko hondartza-Playa de Gros. 22:00
Uztailak 23 Julio	**Goloka** Tximino Sound (Haurrentzat-Infantil) Sagueseko zabaldian-explanada de Sagües. 18:00
Uztailak 30 Julio	**Hankagorri** Mukikrossa (Haurrentzat-Infantil) Aralar kalea-Sierra de Aralar (Loiola). 17:00
Uztailak 30 Julio	**Trapu zaharra** La Avería (Helduentzat-para Adultos) Aralar kalea-Sierra de Aralar (Loiola). 20:00
Irailak 16 Septiembre	**Kukubiltxo** Kukubel (Haurrentzat-Infantil) María Reina eskolaren aurrean (Egia). 19:00
Irailak 18 Septiembre	**Trapu zaharra** Visto y no visto (Helduentzat-para Adultos) Martín Santos (Egia). 19:00

ar3 maiatza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

DONOSTIA
KULTURA

Ekaina, Uztaila, eta Iraila

Junio, Julio y Septiembre

TEATRO EN LA CALLE

ANTZERKIA KALEAN 99

Alza, Antiguo, Egia, Gros, Intxaurrondo eta Loiola

Larratxo: eskolako patioa-patio de la escuela Ekainak 11 Junio 22:30
Sagastieder plaza (Intxaurrondo) Uztailak 1 Julio 22:00

Alò, Europa?



Markeliñe

Erdi Aroko Europak bezala, oraingo Europak ere bere gaztelua prantatzen du, zubi altxagarria eta guzti, "arrotz eskuluze"en aurrean. Obra honetan, kanpotarra Erdiko Afrikako etorkin bat da, Europako hiri batean arrotzen odisea biziko duena.

Markeliñe taldeak, begi eta belarrien harrigarri gertatuko den ikuskaria eskaintzen digu, magikoa; eta modu ironikoaz heltzen dio gure garaietako errealitate garratz bati: Europako inmigrazioarenari, alegia.

Como en la mejor época medieval, la vieja o la nueva Europa crea su propia fortaleza con puente levadizo ante los intrusos del más allá. Sobre este puente se encuentra la odisea de un inmigrante centroafricano en la ciudad.

El grupo de teatro "Markeliñe" nos ofrece una sorprendente propuesta visual y sonora. Una realidad "mágica", alevosa y nocturna, junto a una reflexión irónica sobre un hecho actual: Europa y la inmigración.

San Luis plaza (Herrera) Ekainak 19 Junio 18:30
Martín Santos plaza (Egia) Ekainak 23 Junio 18:00

Inudeak

Ñañek umeak zaintzen lan egiten dute, bereak ez diren umeak zaintzen. Lan gogorra izan daiteke hau, izan ere egun osoa umeen apetak asetzen jarduten baitute. Goloka taldea, iñudeen ordezkari jarri zaigu obra honetan; hori bai, oso iñude berezi batzuen ordezkari.

Las "Iñudeak" trabajan cuidando niños, cuidando niños ajenos. Puede ser un trabajo duro, siempre detrás de los niños, satisfaciendo sus caprichos. El grupo Goloka, representa al colectivo de niñeras, eso sí, unas niñeras muy peculiares.

Goloka

Gaskonia plaza (Antiguo) Ekainak 19 Junio. 18:00
San Martzial plaza (Altza) Ekainak 28 Junio. 19:00
Sagastieder plaza (Intxaurrondo) Uztailak 4 Julio. 19:00
San Frantzisko kalea (Gros) Uztailak 15 Julio. 19:30
Aralar kalea-Sierra de Aralar (Loiola) Uztailak 30 Julio. 17:00

Mukikrossa



Mukikrossaren protagonistak barraskilo batzuk dira. Barraskiloek krossean egin behar dute, abenturaz eta oztopoz beterik dagoen ibilbide batean, eta, oztopo horiek gainditu ahal izateko, umeen laguntza beharko dute.

Lehenago piratak, musikariak eta suhiltzaileak izanak, barraskiloak izango dira obra honetan Hankagorri talde donostiarreko kideak. Beti bezala, ordea, musikak eta jokoek garrantzi berezia izango dute beren ikuskizunean.

Los protagonistas de Mukikross son unos caracoles que realizan un cross por un recorrido lleno de aventuras y obstáculos que tendrán que superar con la colaboración de los/las niños/niñas. Tras haber sido piratas, músicos y bomberos, los componentes del grupo donostiarra Hankagorri se convierten en caracoles. La música y los juegos siguen siendo parte importante de su espectáculo.

Hankagorri

Gabriel Celaya plaza (Intxaurrondo) Ekainak 24 Junio. 22:00

Speerman

SPEERMAN anti-heroi bat da, emakumeek desiratu, umeek miretsi eta gizonek inbidiatu egiten dutena. Hainbat abentura ero-barregarri ditu kontatzeko, eta berarekin dibertsioa ziurtatuta dago.
Loco Brusca kaleko performanceak egiten espezializatu den aktore-pailazoa da. Urteetan zehar metatutako esperientziak eta landutako alor ugariek (pantomima, malabarismoa, globoak, sua...) profesional osoa bilakatu dute eta baliabidez betea.

Loco Brusca

SPEERMAN es el antihéroe deseado por las mujeres, admirado por los niños y envidiado por los hombres. Tiene preparadas delirantes, hilarantes y diferentes aventuras con las que te vas a divertir.

Loco Brusca es un actor-clown que se ha especializado en la performance de calle. A través de sus años de experiencia ha adquirido numerosas habilidades (pantomima, monociclo, malabares, globos, fuego, etc.); que hacen de el un profesional flexible y completo.

Loiolako K.E. Ekainak 25 Junio 19:30

Jokoaren Zirriborroa

Quixot de 8

"Jokoaren Zirriborroa" ikuskari interaktibo bat da, "Quixot de 8" talde katalanarena. Birziklatutako materialekin egindako jokoetan oinarritzen da, eta, bertan parte hartzeko, adinak ez du axolik, izan ere berdin baita interesgarri haur, gazte zein helduentzat. Gune ludiko honetan mundu guztiak har dezake parte, eta mundu guztiak ikas ditzake jokoak.

Joko bakoitzak bere zailtasuntxoa dauka, baina denak konpon daitezke eta oso interesgarriak dira.

"El Garabato del Juego" es un montaje interactivo del grupo catalán "Quixot de 8". Se basa en juegos construidos con materiales reciclados, e interesa tanto a los niños, jóvenes como a adultos. No importa la edad, en este espacio lúdico enseñan a jugar con los juegos y animan a participar a todo el mundo.

Cada juego es un reto que se puede resolver pero, al mismo tiempo, mantiene el interés en todo momento.

Altzako Oleta plaza Ekainak 27 Junio 18:00

Txikiglub

"Txikiglub" kalejira musikala da, jokoak, probak, konfetiak eta gauza dibertigarri asko dituena.

Hankapaluetan dabiltzan lau animalia itsastarrek eta bi pirata naufragok haurren laguntza beharko dute beren helmugara iristeko; kalejiran sartu eta, haurren laguntzarekin, altxor preziatu baten bila abiatuko dira.

Ikuskizun berezi eta pertsonal honekin, Detrakak haurren erreakzioa eta parte hartzea bilatzen ditu, dibertsioz, entretenimenduz eta akzioz betetako koktel batean.

Detraka

"Txikiglub" es un pasacalles musical con juegos, pruebas, confeti, entretenimiento y mucha diversión.

Cuatro animales marinos en zancos y dos náufragos piratas precisan la ayuda de los niños/as para llegar a su destino. Al entrar en el pasacalles, con ayuda de los espectadores, comienza la búsqueda de un tesoro muy valioso.

Con una fórmula personal y propia, siempre en clave de humor, Detraka busca la reacción y participación del público infantil, en un cóctel lleno de diversión, entretenimiento y acción.

Bernart Etxepare plaza (Intxaurrondo) Ekainak 28 Junio 18:00

Sportzis

Hortzmuga

Sportzis karabana ibiltaria Donostiara iritsi da eta Divo Nagusi jauna, berritsu famatu eta iruzurti abila, bere edabe mirakulutsu eta bizigarria guri nola saldu ibiliko da.

Horretarako, Afrikako animalia dibertigarrienez baliatuko da: botika edanarazi eta kirol lehiaketan jarriko ditu, beren trebezia harrigarriak erakusten, edabearen ontasunaren frogagarri.

Baina, Tritxi eta Mitxi hienek Divo Nagusiaren ahalegina zapuzten jardungo dute. Partiduan, horretara, ez dago ez atsedenaldirik, ez araurik, ez ezer... jolasteko eta ongi pasatzeko gogoa besterik.

La Caravana itinerante de "Sportzis" llega a San Sebastián y El Gran Divo, conocido charlatán y eficaz timador, tratará de vendernos su "Sportzis": milagroso bebedizo reconstituyente.

Los animales más divertidos de Africa intentarán demostrarnos los efectos de la porción ofreciéndonos una muestra de sus habilidades en un emocionante partido de cualquier deporte. En este partido no hay reglas, ni tiempos, sólo ganas de jugar y de pasarlo bien.

Las hienas Tritxi y Mitxi se encargarán de estropear todo lo que El Gran Divo trate de organizar.

Gabriel Celaya (Intxaurrondo) Ekainak 29 Junio. 18:00

Xagukumeak

Hika antzerki taldea

Maixa eta Kontxu bi xagukume dira, ahizpatxoak. Gaur, herriko festak direnez, irrikitan daude bertara joateko. Maixak enparantzan izango den antzezlana ikusi nahi du; Kontxuri, ordea, bost axola zaizkio artistak, berari hitz gurutzatuak gustatzen zaizkio eta feriak ikustea...

Istorio ederra kontatzeaz gain, antzezlan honek joko didaktiko batean murgiltzea proposatzen die umeei.

Maixa y Kontxu son dos hermanas ratoncitas que quieren ir al pueblo, ya que hoy son las fiestas patronales. Maixa está deseosa de ver el espectáculo de teatro que se va desarrollar en la plaza, mientras que Kontxu prefiere comprarse el último crucigrama y ver las ferias...

Xagukumeak, además de ser una bella historia, ofrece a los niños la posibilidad de tomar parte en un juego didáctico.

Groseko hondartza-Playa de Gros Uztailak 17 Julio 22:00

Girobira

Gaitzerdi Teatro

Gaitzerdi Teatrok abangoardiako ikuskizun bat dakarkigu, antzerkigintzaren hainbat alderdi konbinatzen dituena: gorputzaren adierazkortasuna (espresibitatea), esateko modua, inprobisazioa, irudimena, akrobazia...

Girobira-n, antzezleak sua, ura eta beste hainbat elementu maneiatzen ditu, mendean hartzen ditu.
Eta hori dena, hondarrez estalitako agertoki batean.

Emaitza, dinamismoz, estetikaz eta iradokizun plastikoz betetako obra bat da, begi-gozagarria, ametsarazlea...

"Gaitzerdi Teatro" enmarca su montaje dentro de una línea de espectáculo de vanguardia, con la combinación de variadas disciplinas teatrales llenas de dinamismo.

En "Girobira" se juega con la expresividad corporal y verbal, con la improvisación y el recurso a la imaginación, con los desarrollos acrobáticos,...

El actor se convierte en manipulador de elementos como el fuego o el agua, con los que poder plantear una impresión visual-estética, en un escenario cubierto de arena, donde los sueños y las sugerencias plásticas dan con la clave del evento.

Biteri plaza (Gros) Uztailak 16 Julio 18:30/19:30

La Ventanita

Chipliniana

"Chipliniana" obrak omenaldia egiten dio zine mutuari, eta, batez ere, Charles Chaplin, Buster Keaton, Paulette Goddard eta Claire Bloomi.

Valladolideko "La Ventanita" konpainia hiru aktorek osatzen dute. Artistak antzezlana egingo den lekura iritsi eta, pixkanaka, Charlot, kale-neskatxa, Keaton, neskato dantzaria...hasten dira agertzen, ikusleen aurrean.

Gero, dantzako bakar-saioa dator, pantomimak eta istorio xumeak, eta emakume eder baten faboreak lortzeko lehian dabiltzan bi jenioren topaketa.
La obra "Chipliniana" homenajea al cine mudo, y en especial a Charles Chaplin, Buster Keaton, Paulette Goddard y Claire Bloom.

La compañía vallisoletana "La Ventanita" la componen tres actores. Los artistas llegan al espacio donde realizarán su actuación y, poco a poco y a la vista de los espectadores, comienzan a convertirse en Charlot, Keaton, La golfilla y La bailarina.

Un solo de baile, pantomimas, pequeñas historias, el encuentro de dos genios que compiten por conseguir los favores de una bella mujer.

Aralar kalea-Sierra de Aralar (Loiola) Uztailak 30 Julio 20:00

La avería

Trapu Zaharra

Beren jantzi dotoreenez apaindutako senar-emazte batzuei automobila hondatzen zaie Loiolako auzoan, ilobaren ezkontzara doazela. Emakumezkoa guztiz ilusionatuta dago ezkontzarekin -bera da amabitxia- baina bere senarrak ez du elizkizunera joateko inolako gogorik. Aberia ezkontza hasteko minutu batzuk besterik falta ez direla gertatzen zaie.

Gizonak, setati, berebila bertan konpondu behar duela eta konpondu behar duela: laster sortuko da liskarra senar-emazteen artean. Egoera, gainera, gero eta gaiztoagotuz joango da: zerbaitek leher egiten du motorrean, emakumea garrasika, jendea bikotearen inguruan...Azkenean, gizonak kotxea puskatu nahi duela, udaltzainak agertzen dira, grua ere bai... Izugarrizko saltsa... Probokazioa, umorea eta inprobisazioa, maisuki erabiliak, Errenteriako konpainia ezagunaren eskutik.

Un matrimonio, vestido con sus mejores galas, sufre una avería en el coche cuando se dirige a la boda de su sobrina. Ella va a ser la madrina, pero a él no le hace ninguna ilusión asistir a la ceremonia nupcial. El incidente se produce minutos antes del comienzo de la boda.

El hombre se empeñará en arreglar el coche, cueste lo que cueste, empeño que terminará por desatar un conflicto conyugal en toda regla. La situación se complicará aún más cuando algo explosione dentro del motor e irá a más, si cabe, cuando el marido decida destrozar el coche. Al final, la Policía municipal y la grúa se sumarán al espectáculo para imponer orden y concierto al desbarajuste montado por "Trapu Zaharra".

Provocación, humor e improvisación en amplias dosis, a cargo de esta popular compañía de Rentería.

Martin Santos (Egia) Irailak 16 Septiembre. 19:00

Kukubel

Hogei urte daramatza, dagoeneko, Kukubiltxo konpainiak eszenatokian. Kukubel obra berri hau, bere ohiko publikoarentzat, haurrentzat, prestatuta dago, eta betiko jokoetan oinarritzen da, baina jokatzeko erak berriak dira, ordea.

"Kukubel"en oinarria Resurrección Maria Azkueren hainbat ipuin dira, Kukubiltxok istorio bakarrera biltzen dituena. Kukubel neska artzain gazte bat da, bere musikarekin Herensugea menderatzen duena eta sorgina izatea leporatzen dion apaizaren gezurrak agerian utziko dituena.

Veinte años lleva ya sobre el escenario la compañía Kukubiltxo. Su nueva obra, "Kukubel", se dirige a su público más habitual, los niños, recreando los juegos de siempre, aunque inventado nuevas formas de jugar.

"Kukubel" surge de una recopilación de cuentos de Resurrección María de Azkue que Kukubiltxo convierte en una sola historia. Kukubel es una joven pastora que vence con su música a Herensugea y descubre las mentiras del cura que le acusaba de ser una bruja.

Martin Santos (Egia) Irailak 18 Septiembre. 19:00

Visto y no visto

Lau timadore -apaiz bat eta hiru musikari itsu- kalez kale dabiltza díru-biltzen. Apaiza ordezkari ofizial aurkeztu nahi omen dute O.T.I. musikaldian, eta horretarako behar omen dute dirua.

Magia eta music hall-ezko ikuskari berezi honetan, umorea eta probokazioa ugari erabiltzen ditu berriro Errenteriako talde beteranoak, jendearen gozagarri; are gozagarriago, taldeak luzatzen duen gonbita probetxatuz, ikuskarian parte hartuz gero.

Trapu Zaharra taldearekin 6 urte daramatzan obra honetaz gain, talde beraren beste obra bat ere izango dugu ikusteko aukera, kale-antzerkiko aurtengo programazioan: "La averia" izeńekoa, alegia.

Un grupo de timadores formado por un reverendo y tres músicos ciegos recorren las calles recolectando dinero para apoyar la candidatura del clérigo como representante oficial en el Festival de la O.T.I.

Para esta especial propuesta, esta veterana compañía de Rentería, realiza un espectáculo de magia y canciones de music hall divirtiendo al público con grandes dosis de humor y provocación.

Trapu Zaharra lleva seis años representando esta obra e invita a la gente a jugar en ella haciendo un montaje muy participativo y espontáneo del que también se podrá disfrutar en la obra "La Avería".